

Izena : _____ Data : _____

Aditza I

Gogoratu

Aditzak bi motatakoak izan daitezke:

- **Trinkoak:** hitz bakar batez osatuta daude.
- **Perifrastikoak:** bi hitzez osatuta daude.

1. Testu honetan, inguratu aditz trinkoak gorriz eta perifrastikoak urdinez:

Aitonaren bila

Biharamunean, aitona Joan Sebastianen bila ibili ziren, batera eta bestera. Aska zikin baten inguruan aurkitu zuten azkenean. Lurrean ahuspez zegoen. Okerrenaren beldur, aitonarengana hurreratu ziren. Hura ez zen mugitzen.

Poliki-poliki jiratu zuten gorputza. Zurbil zeukan aurpegia, itxita eta handituta zeuzkan bi begiak, ahoa erdi zabalik, ezpainak ubelduta. Pultsua hartu zioten eskumuturrean. Ahul - ahula zuen, arnasa bezala. Bizirik zegoen. Bi marinelek bizkarrean hartu zuten, eta eramane zuten, kontu handiz eta poliki-poliki, portu aldera, gainerako marinela zeuden tokira.

Pello Esnal, Kutun kutuna, Bruño (moldatua).

2. Osatu esaldiak aditz trinkoekin.

- Etxeko giltzak gelako zokoren batean omen _____ (egon) galduta.
- Uholdeen ondorioz, ibaiak ur asko _____ (eraman).
- Ez _____ (irudi) gaixo zaudenik, itxura ona _____ (eduki) eta.
- Bizkar-zorroa liburuz Beteta _____ (ekarri) egunero.
- Gero arte, ama! Lagunekin _____ (joan) kalera.

3. Berridatzi esaldiak, aditz-lokuzioak ordeztuz.

- Burrumba hura entzundakoan, animaliek alde egin zuten.

- Hitz ematen dizut bihar zinemara joango garela.
